

ALAITASUNA PILOTA TALDEA (BAKIO'N)

Oraingoan, gure alkarrizketako txokoa betetea ALAITASUNA pelota taldeari tokatu jako. Orretarako, Juan Karlos Uriartegaz egon gara berbetan, bera da-eta ALAITASUNAKo arduradunetarikoa bat. Oneexek izan dira ba, an entzundako berbak.

ZER: Noiz eta zelan sortu zan ALAITASUNA?

JK: Ba, 1990. urte inguruan izan zan eta deia udaletxetik etorri zan Kepa Uriarte zinegotziaren bitartez. Pelota munduan genbilzanoi pelota taldea errian sortzea proposatu euskun eta udaletxean bertan orretarako batzartu ginan. Gu pelotaren inguruan asko ibiltzen ginan, baina inoz ez jakun kirol talde lez antolatzea bururatu.

ZER: Nortzuk ibili zinen asikerako momentu orreetan?

JK: Or egon ginan, ba, Jorge Busturia, Altzagako Jesus Mari, Larrondoko Jabier, Imanol Larrazabal eta ni neu. Kepak ekarri euskuzan estatuto batzuk eta orreekaz asi ginan bearrean.

ZER: Gaur egun nortzuk dabilz bearrean?

JK: Orain geien gabilzanok, Igor Lopategi, Aritza Ormaetxea, Egoitz Abio, Landabasoko Jesus eta neu. Batzuk gaztetxuen entrenatzaile lez eta beste batzuk laguntzaile lez.

ZER: Zenbat pelotari gazte dabil olgetan? Ba dago zaletasunik?

JK: Zaletasunari eustea kontatu egiten da, baina badabilz batzuk neguko eskolarteko txapelketetan parte artzen. Ba, esate baterako, benjaminetan, zortzi eta bederatzirteko mutil eta neskatoak dabilz eskuz olgetan. Gero, badagoz alebinak, infantilak eta kadeteak palara olgetan dabenak.

ZER: Urtearen barruan zeintzuk txapelketa antolatu dozuez?

JK: Erriko jendearen parte artzea elburu dabenak dira, geienbat. Olan ba, neguko gomazko pelotagazko pala txapelketa, ogeita lau orduak palara olgetakoa, eta eskuzko binaka eta banakakoa. Gero, orretaz aparte, udako nartzuko pelotagazko pala txapelketa, beste erri batzuetatik be jendea ona etorten jakula. Bagilean zear, barriz, Euskadiko Pala Laburreko Txapelketa olgatu izan da, estatu mailako pelotaririk onenak bertan euki doguzala, profesionalak izandakoak, mundialetan ibilitakoak...

ZER: Azaldu eiskuzu apurtxu bat zer izan dan txapelketa garrantzitsu ori, mesedez.

JK: Txapelketa ori Euskadiko Pelota Federakuntzak eratu izan da eta Bakioko Udalaren babesa izan dau. Araba, Nafarroa eta Gipuzkoatik etorritako pelotazale asko izan dira ikusle bertan. Esan bear be, barrikuntzarik andiena 12 tantuko bost joko (leen, 40 tantuko batera olgatu izan da beti) olgatu bear izan dabezala izan dala, orreetarikoa iru egin ezkerroan, irabazle. Sistema barri au sano eztabaidagarri izan arren be, pelotarien artean motibazino andiagooa eragin izan dau eta ikusleentzat interesgarriagoa izan da. Dana

dala, sistema au ez da oso-osooan barria, Nafarroako txapelketan antzeko gauzaren bat eginak dira eta.

ZER: Bearrizanik edo badozue zeuon bearra beteteko?

JK: Argi dago daukagun arazorik larriena frontoiaren mantenimendua dana. Neguan ura nozgura sartzen da eta batzuetan pelotariei gedar egin bear izaten jake etorri ez daitezkan. Gauza politikak egin leitekez, baina ez daukagu ziurtasunik, neguko txapelketak kendu egin bearko dira, azkenean. Bearbada, kantxero bat imini bearko litzake frontoiaren mantenimendua eta alokatzea berak eroateko.

ZER: Zein da zeuentzako aurrerantzerako elbururik nagusiena?

JK: Gure elbururik nagusiena jendeak pelotan olgetako zaletasunari eustea da, gure erriaren betiko kirola dalako, eta frontoiak bete bear dauazan funtzinoak indartzea.

ZER: Ba beste barik, ba, jarraitu zintzo-zintzo bearrean eta urengora arte.

UNAI BEITIA

Bakio, Euskadiko Txapelketako Pala Laburreko 1. Finalaren lekukoa

Bagilean barrena eta garagarriaren 1. astean Bakioko frontoian jokatu zan Euskadiko Txapelketako Pala Laburreko 1. finala. Norgeiagoka orretako tanteoa 35-12 izan zan eta Soler bizkaitarrak nagusitasun andiz irabazi eutson Erburu II. nafarrari.

Txapelketa au zirkuitu modura eratuta dago eta iru final eukiten dauz. Orreetatik leenengoa Bakion jokatu da (58 txapeldungai), bigarrena Zarautzen (Gipuzkoa) eta irugarrena Zidorran (Araba). Final baktxaren ostean ainbat puntu emongo jakoz leenengo lekuetan sailkatutako pelotariei. Puntu orreen arabera, bada, puntuazinatorik geien lortu daben leenengo 12 palariak artezean pasatuko dira Sopelan irail inguruan jokatuko dan finalera. Bakion, garagarriaren 3an finala jokatu ostean, eskuratu eben puntuazinoa onako auxe izan da:

— Oroz: 120 puntu

— Otero II: 100 puntu

INIAKI MARTIARTU



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

SAN JOAN SUA, BAGILAREN 23AN

SAN JOAN JAIA, BAGILAREN 24AN

Jai ederrak badagoz gure artean, Doniene jai ez da, bearbada, leba txikerrenekoa. Noz sortua dan ez dakigu. Noren omenez edo gomutaz be ez. Eguzkiaren udaburua ospatuteko, aurki. Antxin-antxina sortua dogu, Euskalerrian kristautasuna sartu orduko sortua. Aurreko egunean. taket tantaia lekuri egokienean zutunduta iminten da eta ilundirantza aren inguruan metatutako bedar, sasi, ota, abar, ool eta ganerakoei su emoten jake eta dantzaldiak ta ikotiak egiten dira. Egun orretan sutzar itzelak egiteko ekandua dogu Euskalerrian. Oraintsu artean, Donienerako Bakion bizi-bizirik egon dan beste ekandu bat auxe izan da, leizar abarrak ateetan imintekoa, afrontu eta trumoietatik jagon egiten ginduezalakoan. Doniene egunean gure etxeetan leizar abarrak iminteko ekandu ori, beste asko lez, zoritxarrez, galduz doa.

Berbalapikoa

leba = garrantzi. ikoti = salto, jauzi.
gomuta = oroipen, gogo. sutzar = su andi.
udaburu = solstizio. ekandu = oitura.
tantai = luze-andi. afrontu = ekatz.
metatu = batu.

San Joan zelan etorri, atan joan.

Atzo San Joan, gaur joan zan.

San Joan, jan-edanak joan.

SAN PELAIO EGUNA 99 BAGILAREN 26AN

Egun eguzkitsu ta ez otza izan genduan bagilaren 26an San Pelaio baseleizara urreratu gintzazanok. Auzokorik asko batu zan baseleiza ingurura. Mezea eguerdiko 12.00etan asi zan. Amaitu ostein, 13.00etan edo, jan koputxua emon euskuen inguruetan genbilzanoi. Oiko txakolina eta gailitez ganera, txorizo eta buz-kantz erreak egon ziran danontzako jangai. Gosekil asko baztarretan! Bakioko txistulariak eta txalapartariak giroa berotuten ibili ziran mezea amaitutakoan. Bertsolariek euren txandeari oratu eutsoen eta an ibili ziran iruna bertso saio kantetan. Ez daiguzan aaztu Gernika ingurutik etorritako inpernuko auspo jole gazteak, euren ekitaldia danon gogokoa izan zan-eta. Amaituteko, auntzerrikoek auzotarren arteko bazkariari ekin eutsoen, bertsolariak ta soinuariak arrastia alaituten Urizarreta inguruan ibili ziran bitar-tean. Bat edo batzuk belu be belu joan ei ziran etxera, noski.

Bertso afaria udan

Abuztuaren 12an Udako Bertso Afaria izan dogu Unai Eloorriaga eta Igor Elortza bertsolariakaz. Afaria TXOBERNE tabernan izan da eta ilundiko 10.00etan asi da. Salneurri bi izan doguz: 25 urtetik gorakoentzako 2.000 pta. eta 25 urtetik beerakoentzako 1.500 pta. Sartuteko txartelak Kultur Etxean egozan salgai, arratsaldeko 5etatik 9retara. Bertso Afaria Bakioko Euskera Batzordeak eratu dau eta erriko eta udatiar euskaldunen arteko artuemonak euskeraz zabaltzea eban elburu.

SAN JUAN DOLOZAK 99 BAKIOKO JAIETAKO EGITARAUA

Dagonilaren 27an

18.00etan - Pelota partiduak, pelotalekuan.
23.30etan - Gau dantza: Alaitz eta Maider, Zubiaurren.

Dagonilaren 28an - San Agustin Eguna

12.00etan - Arezko gaztelu txapelketea eta rokodromoa, aretzan.
17.00etan - Futbito txapelketaren azkenak, Urkitza ikastetxean.
18.00etan - Pelota partiduak, pelotalekuan.
20.00etan - Jai asikerako danbadea, Bentan. Kalerik kalekoa Zubiaurren: burdia, txakolina, dantzariak, musikariak, koadrilak, sardin-jatea...
23.30etan - Euskal Folklorea: BEGIRALEAK (Lapurdi) eta ERREGE TXOPITAK (Zuberoa) iparraldeko dantza taldeak, probalekuan.
24.30etan - Rock kontzertua: R-AKZIOA, AKATZ eta ZEA MAYS, Zubiaurren. Gau dantza, Enderika enparantzan.

Dagonilaren 29an - San Joan Doloz Eguna

10.00etan - Nekazal azokea, Portuondon.
10.30etan - Kalerik kalekoa.
13.00etan - Ardi txakurren erakusketea, Urizarretan.
18.00etan - Pelota partiduak, pelotalekuan.
TXAN magoa eta gazteentzako mozorro leiaketea, udaletxeko enparantzan.
20.30etan - Euskadiko Trontzalarien Txapelketea, probalekuan.
23.00etan - Su artifizialak, aretzan.
24.00etan - Salsa gau-dantza eta mozorro leiaketea, Zubiaurren.

Dagonilaren 30ean - San Joan Doloztxu Eguna

11.00etan - Kalerik kalekoa
12.30etan - Sokako aureskua (Andra Mari Dantza Taldea), jota erakusketea (MEAKA taldea), Nafarroako joteroak eta Bakioko Abesbatza, Tabernaldean.
18.00etan - Pelota partiduak, pelotalekuan.
Goitibeeren jatsikerea, San Pelaion.
20.00etan - Umeentzako erromeria, Bentan.
23.00etan - Kontzertua: BENITO LERTXUNDI, probalekuan.
Ostein, gau dantza TRIKI-TAKE taldeagaz, Zubiaurren.

Dagonilaren 31an - Eneperi Eguna

11.00etan - Kalerik Kalekoa.
12.00etan - Paella txapelketea, Urizarretan.
17.00etan - GORRITiren jokoak, Urizarretan.
21.00etan - TIRRI-TARRA fanfarrea, Urizarretik Zubiaurren.
22.00etan - Txistorra jate eta koadrilen sari banaketea, Zubiaurren.
23.00etan - Suzko zezena eta gau dantza fanfarreagaz.

Irailaren 4an

18.00etan - Tortila txapelketea, Bakeako zelaian.
22.30etan - Kubako musikea, Enderika enparantzan.

Irailaren 5ean

10.00etan - Artisau azokea, Bentan.
11.00etan - Bermeo-Bakio lasterketea.

INIAKI MARTIARTU